

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNUAREN SAILA

5458

EBAZPENA, 2024ko azaroaren 19koa, Enplegu Publikoko zuzendariarena, zeinaren bidez Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuari igortzen baitzaio, lan-kontratuak egiteko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko Lan Kontratudunen Kolektiboentzako Hitzarmenean lan-kontratudunentzat gordetako lanpostuetan enplegua finkatzeko zenbait prozesu berezitan eta enplegu publikoa finkatzeko salbuespenezko zenbait prozesutan hautatutako pertsonen zerrenda.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2022ko irailaren 8ko Aginduaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko Lan Kontratudunen Kolektiboentzako Hitzarmenean lan-kontratudunentzat gordetako lanpostuetan enplegua finkatzeko prozesu bereziak eta enplegu publikoa finkatzeko salbuespenezko prozesuak arautzen dituzten oinarri orokorrak onartu ziren.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2022ko azaroaren 17ko Aginduaren bidez, deialdia egin zen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko Lan Kontratudunen Kolektiboentzako Hitzarmenean lan-kontratudunentzat gordetako lanpostuetan enplegu publikoa finkatzeko prozesu hauek egiteko besteak beste:

- Laborategiko teknikaria. Enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesua.
- Laborategiko laguntzailea. Enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesua.
- Peritu Judiziala. Enplegua finkatzeko prozesu berezia.
- Peritu Judiziala. Enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesua.

IVAPeko zuzendariaren 2024ko irailaren 26ko Ebazpenaren bidez, prozesu horietan hautatutako pertsonen eta esleitu behar diren lanpostuen behin betiko zerrendak argitaratu ziren, eta, era berean, hoguei eguneko epea eman zen prozesu horietan eskatutako baldintzak eta balioetsitako merezimenduak betetzen direla egiaztatzeko agiriak aurkezteko.

Ebazpen honen eranskinetan agertzen diren pertsona hautatu guztiek eskatu zaien dokumentazioa ezarritako epearen barruan aurkeztu dutenez, oinarri orokorren 16. apartatua betez, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuari igorri behar zaio Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren organismo autonomoen zerbitzurako lan-kontratuak formalizatu behar dituzten pertsonen zerrenda.

Horrenbestez, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuari zerrenda hau helaraztea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren organismo autonomoen zerbitzuko lan-kontratuak egiteko: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboentzako hitzarmeneko lan-kontratudunentzat gorde ziren enplegua

finkatzeko prozesu berezietan eta salbuespenezko prozesuetan –Gobernantza Publiko eta Auto-gobernuko sailburuaren 2022ko azaroaren 17ko Aginduaren bidez antolatuetan– hautatutako izangaien zerrenda. Hona hemen prozesuok, zerrendatuta eta haietako bakoitzari dagokion eranskina adierazita:

Prozesua	Prozesu mota	Eranskina
Laborategiko Teknikaria	Finkatzeko salbuespenezkoa	I
Laborategiko Laguntzailea	Finkatzeko salbuespenezkoa	II
Peritu Judiziala	Finkatzeko berezia	III
Peritu Judiziala	Finkatzeko salbuespenezkoa	IV

Bigarrena.– Hautatutako pertsonak 2024ko abenduaren 5ean sinatu behar dute dagokien lan-kontratua.

Ezarritako egunean lan-kontratua sinatzen ez duenak galdu egingo ditu –ezinbesteko kasuetan izan ezik– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako lan-kontratudun finko izateko eskubide guztiak, deialditik eratorriak.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honen aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtoa aurkez diezaioke Enplegu Publikoko sailburuordeari, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hilabete igaro baino lehen, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko azaroaren 19a.

Enplegu Publikoko zuzendaria,
NEKANE COBOS SALINAS.

2024ko azaroaren 28a, osteguna

I. ERANSKINA

Laborategiko Teknikaria. Enplegua finkatzeko salbuespeneko prozesua

NAN	Deiturak eta izena	Lanpostua	Dotazioa	Lanpostuaren izena	Saila/Organismoa
1633	DIEGO GONZALEZ, YOLANDA	3484	1	LABORATEGIKO TEKNIKARIA	JUSTIZIA ETA GIZA ESKUBIDEAK
***2281**	PEREZ DOBARAN, BEGOÑA	3484	4	LABORATEGIKO TEKNIKARIA	JUSTIZIA ETA GIZA ESKUBIDEAK
***3302**	VILA BLANCO, MARIA ISOLINA	3484	5	LABORATEGIKO TEKNIKARIA	JUSTIZIA ETA GIZA ESKUBIDEAK

2024ko azaroaren 28a, osteguna

II. ERANSKINA

Laborategiko Laguntzailea. Enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesua

NAN	Deiturak eta izena	Lanpostua	Dotazioa	Lanpostuaren izena	Saila/Organismoa
1833	MARTINEZ VELASCO, ESTHER	3335	1	LABORATEGIKO LAGUNTZAILEA	ETXEBIZITZA ETA HIRI AGENDA

2024ko azaroaren 28a, osteguna

III. ERANSKINA

Peritu Judiziala. Enplegua finkatzeko prozesu berezia

NAN	Deiturak eta izena	Lanpostua	Dotazioa	Lanpostuaren izena	Saila/Organismoa
7091	RODRIGUEZ OYARBIDE, AMAYA	3439	4	PERITU JUDIZIALA	JUSTIZIA ETA GIZA ESKUBIDEAK

2024ko azaroaren 28a, osteguna

IV. ERANSKINA

Peritu Judiziala. Enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesua

NAN	Deiturak eta izena	Lanpostua	Dotazioa	Lanpostuaren izena	Saila/Organismoa
1097	ECHARRI GARCIA, MIREN ARANTZA	3439	3	PERITU JUDIZIALA	JUSTIZIA ETA GIZA ESKUBIDEAK
0766	MARTINEZ DE LAHIDALGA PINEDO, IZASKUN	3439	5	PERITU JUDIZIALA	JUSTIZIA ETA GIZA ESKUBIDEAK
8069	URQUIJO REIGADAS, MARIA ISABEL	3439	6	PERITU JUDIZIALA	JUSTIZIA ETA GIZA ESKUBIDEAK